



**FORO DE BARRIO**  
**AUZO-EZTABAIDAGUNEA**  
**2018**  
**ENSANCHES/ZABALGUNEAK**

<b>Fecha / Data:</b>	2018/05/22
<b>Hora / Ordua:</b>	18:30
<b>Lugar / Kokalekua:</b>	Arrosadiako Civivoxa
<b>Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:</b>	Itziar Gomez
<b>Participantes / Parte-hartzaileak:</b>	28 personas/pertsona: 14 mujeres/emakume, 14 hombres/gizon
<b>Otros / Bertze batzuk:</b>	Koldo Fernandino
<b>Moderadores / Moderatzaileak:</b>	Floren Luqui (técnico de Participación / Partaidetzako teknikaria) Maitane Urmeneta (SDP)

**Apertura / Hasiera**

**Eztabaidagunearen aurkezpena, Floren Luquiren eskutik**

Floren Luqui Herritarren Partaidetza eta Gizarte Ahalduentzako Alorreko teknikariak ongi-etorria egin die Zabalguneetako auzo-eztabaidagunera etorri diren lagunei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik. Luquik Itziar Gomez auzoko erreferentziako zinegotzia aurkeztu du, eta Gomezek azaldu du zer jarduketa-egin diren azken urtean. Koldo Fernandino ere aurkeztu du, Hirigintzako Kudeaketako arkitektoa, eta Fernandinek ekarpen bat egin du auzoaren orainari eta geroari buruz.

**El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du**

Itziar Gomezek hitza hartu du, eta auzotarrei eskerrak eman dizkie auzoko hirugarren eztabaidagunera etortzeagatik. Zabalguneetako azken auzo-eztabaidagunetik (2017ko martxoa) udalak zenbait jarduketa egin ditu, eta Gomezek haien berri eman du jarraian.

Lehenbiziko Zabalguneari eragiten dion eta aurten egin den jarduketarik garrantzitsuena Atsegin Egiteko Plana izan da; 2017ko irailean jarri zen abian. Abian jarri eta sei hilabete geroago, plana berrikusi da; aurreikusitako helburuak bete ditu planak: zirkulazioa murriztea, zarata eta kutsadura murriztea, eta hiriko



espazioaren kalitatea hobetzea. Helburu horiekin batera, Atsegín Egiteko Planak hamar proposamen dakartza:

- 1.- “ATSEGIN EGITEKO PLANAREN” BULEGOA: Alde Zaharrerako sarbide kontrolatuko eremuari eta Atsegín Egiteko Planari buruzko kontuetarako.
- 2.- CONDESTABLEKO AURREZ AURREKO ARRETARAKO BULEGOA
- 3.- “TOK-TOK” APLIKAZIOA — ALDE ZAHARRERAKO SARBIDEA: Alde Zaharrera une puntaletan sartu ahal izateko.
- 4.- WEBGUNEAK eta LOTURA DIGITALAK hobetzea
- 5.- GERALEKUAK: Hezkuntzako aparkalekua, iparraldean; Aduanako aparkalekua, mendebaldean; Sarasate (Correosen parean), hegoaldean; eta Labrit, ekialdean. Etorkizunean, gareleku bat jarriko da Merkatu kalean.
- 6.- MERKATARITZA-ORDUTEGIAN TXANDAKATZEKO 247 PLAZA GORRI SORTZEA: Merkataritza-ordutegitik kanpo, eremu berdea izango dira; Gurutzeko plazan eta Merkatu, Paulino Caballero, Arrieta, Amaia, Lizarra eta Navas de Tolosa kaleetan.
- 7.- EGOILIARRENDAKO 126 PLAZA BERDE BERRI SORTZEA Haietako 64, Runa parkean, eta 62, Antoniutti-ren parean.
- 8.- LOTURAKO DOAKO AUTOBUSA (VILLAVESAK) TRINITARIOSEKO APARKALEKU PUBLIKOTIK Alde Zaharreraino.
- 9.- KALE NAGUSIA: Sarbidea mugatu da: bakarrik auzotarrak eta zamalanak.
- 10.- METRO-MINUTU SEINALEAK INSTALATZEA: Hiriko zenbait eremutatik zentrorra oinez joatea sustatzeko.

Hamar neurri horietaz gain, beste hiru neurri osagarri daude:

- 1.- MERKATARITZA-APARKALEKUAK LAN-MAHAIA, lankidetzarako formulak bilatzeko, eta bezeroendako beherapenak edo prezio atsegínak lortzeko.
- 2.- “Respira- Arnastu” INFORMAZIO-KANPAINA. Planaren helburu eta neurriei buruz informatzeko.
- 3.- ZENTRORAINOKO IBILBIDEEI BURUZKO SEINALEAK JARTZEA HIRIKO SARRERETAN.

Gomezek nabarmendu du, halaber, konpromisoa hartu dutela Atsegin Egiteko Planari buruzko eztabaidagune bat bi urtez izateko, eta inkestak egingo direla planaren pertzepzio sozialari buruz, 2018ko abenduan eta 2019ko apirilean. Horretaz gain, airearen kalitatean duen eraginari buruzko azterlan bat egiten ari dira Nafarroako Unibertsitatearekin.

Ildo beretik, Atsegin Egiteko Planak bigarren fasea du: planak ukitutako eremuak berrurbanizatzea (Parlamentuaren inguruko eremua, Navas de Tolosa, San Lorenzo eta Taconera). Esku-hartze hori uda-amaieran hasiko da, eta 1.200.000 euroko kostua izango du; horietatik % 80 Navas de Tolosa eta Taconera berrurbanizatzeko izango da. Bertze zenbait eremutan ere hobekuntza teknikoak egingo dira: Aita Moret, Navas de Tolosa eta Yanguas y Miranda. Sarasate pasealekua aurrerago egingo den ideia-lehiaketa baten zain dago.

Iragarritako bertze obretako bat da Kale Berriko merkatuarena; ia milioi bat euroko inbertsioa egingo da eremua berroneratzeko, eta Gabonen ondoren hasiko da. Halaber, koordinatzaile bat kontratatu da merkatuaren bizitza dinamizatzeko eta merkatuaren eta auzotarren arteko loturak dinamizatzeko eta sendotzeko.

Berrikuntza bat: ekainaren 9an inauguratuko da 'Geltoki', antzinako autobus-geltokia; merkataritza solidarioko esparru bat izango da, eta bidezko merkataritzako dendak, kutxatilatagia, kafetegi bat eta diziplina anitzeko espazio bat izango ditu, auzotarrentzat irekita egongo dena.



Aipatutakoez gain, egin diren inbertsioak eta egiteko dauden inbertsioak eta lanak erreparatu ditu Itziar Gomezek:

- EGINDAKO INBERTSIOAK
- Vazquez de Mella ikastetxeko komunak eraberritzea.
- 'Geltoki' amaitzea.



- Bigarren Zabalguneko Auzo Unitatea eraberritzea.
- Agoitz kaleko kontserbatorio zaharrearantz espazio bat egokitzea.
- Lizarra kaleko espaloiak.
- Gaztelugibeleko bidegorria luzatzea.
- Pio XII.a-Gaztelugibel oinezkoentzako pasabidea.
- Taconera zolatu eta sendotzea.
- Francisco Bergamín eta San Fermin kaleen arteko bidegurutzea amaitzea.
- Amaia eta Arrieta kaleetako oinezkoentzako pasabideak.
- Zangotza eta Vianako Printzearen kaleen bidegurutzeko izkinak.
- Autobus-erreia sendotzea zenbait kaletan.

#### EGITEKO DAUDEN INBERTSIOAK

- Taconerako zoladura berria eta parkerako irisgarritasun-arrapalak.
- San Fermin, Paulino Caballero, Navas de Tolosa eta Agoitz kaleetako galtzada-harriak berroneratzea eta hobetzea.
- Galizia etorbidean espaloia hobetzea eta lorategi bat egitea.

#### Zabalguneetako auzo-eztabaidaguneetan BEHIN ETA BERRIZ AGERTZEN DIREN GAIAK

- Maristak: Proposamen bideragarri berri baten zain.
- Xabiertarrak: Jabeak proposamenen bat egiteko zain.
- Erorien monumenturako nazioarteko ideia-lehiaketa: deialdiaren zain.
- Salestarrak: Hirigintza-kalitatea helburu duen xehetasun-azterketa onetsi da.

Gai horiek guztiak errepasatu ondoren, Gomezek hitza eman dio Koldo Fernandinori, Barne Eraberritzeari buruzko Plan Berezia (PERI) azaldu dezan; plana azken 10 urteetan egin da lehenbiziko zabalgunean eta bigarrean.

Planaren zehaztapenetako bat da behin betiko onetsi eta 10 urtera haren indarraldia, gaurkotasuna eta bilakaera aztertu eta berrikusi behar direla ikuspegi demografikotik, sozioekonomikotik, eta zuzkidurakotik. Testuinguruan jartzeko, gogorarazi du lehenbiziko zabalgunea Iruñeko hirigune historikoaren eremu babestuaren barruan dagoela, eta horregatik, planeamendu berezia izan behar duela, babes-zehaztapen bereziekin. Bertzetik, hiri kontsolidatuan esku-hartzeko erak zehazten dituzte zenbait hirigintza-legek. Arrazoi horientzat, egoki irizten zaio PERI berrikusteari, eta horrek ekarri du eremu bakoitzerako plan espezifiko bat egotea.



Lanaren edukia antzekoa da bi kasuetan, eta lau fase ditu:

- 1– Informazioa eta azterketa. Datu-bilketako fase teknikoa.
- 2– Diagnostikoa-aurreproiektua: Zabalgunerako egon daitezkeen antolamendu-alternatibak eta herritarren partaidetza-prozesua.
- 3– Izapidetzeko moduko dokumentu bat idaztea, eta jendaurrean aurkeztea, helegiteak aurkeztu ahal izateko.
- 4– Behin betiko dokumentua eta txostena egitea.

Aurreikusita dago parte hartzeko prozesu bat irekiko dela lehenbiziko fasea hasi eta zazpi hilabeteko epean, eta kontsultatu daitezkeen dokumentu publiko batean jasoko direla alderdi hauei buruzko proposamenak: espazioaren tratamendua, zuzkidurak eta ekipamenduak, espazio libreak, mugikortasuna (oinezkoentzako ardatzak, bidegorriak, ibilgailu pribatuetarako eta garraio publikorako kaleak)...

Fernandinok, halaber, aipu egin dio Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planari (HMJP): Iruñeko eta Iruñerriko mugikortasunari eragiten dionez, hura ere kontuan hartu beharko da Atsegin Egiteko Plana eta HJPB (PERI) berrikustean.

## **El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du**

Tartea zabaldu da bertaratuek ekarpenak egin ditzaten.

1. José Alonso kaleko auzotarra: Arazoak daude zoladuran, eta asfaltatu egin behar da.
2. Auzotarra: Zalantzak ditu Atsegin Egiteko Plana amaitzeko epeen inguruan.
3. Auzotarra: Zalantzak ditu aparkalekuetako plaza gorri/berdeen dualtasunari buruz.
4. Proposamena: 15 minutuko doako aparkaleku-plazak jartzea, matrikula-zenbakia sartu behar den parkimetroekin, txandakatze-eremuak sortzeko.
5. Tafalla kaleko auzotarra: Tafalla kalean ostalaritza- eta merkataritza-establezimenduekiko arazoei buruzko kexak (zamalanelarako eremuak, aparkatzeko arazoak, zarata, zikinkeria, espazio publikoaren okupazioa eta abar).
6. Auzotarra: Kexatu da bizikletek espaloian zirkulatzen dutelako. Noiz joango dira txirrindulariak galtzadara?
7. Proposamena: belarra mozteko makina elektrikoak erabiltzea, ez kutsatzeko.
8. Auzotarra: Aire zabaleko gimnasioak behar dira (Media Lunan, kasu).
9. Auzotarra: Zoladura-arazoak Askatasun Plazan.



10. Erorien monumentua: hodi bat hautsita dago, eta hezetasuna eragiten ari da eraikinean.



1. Auzo-elkartea:
2. Zabalguneko auzotarrak ez dira erorien monumentuari buruzko ideia-lehiaketaren protagonista.
3. Basotxoa txukundu behar da, eta Taconeran integratu, oinezkoentzako kale berriarekin batera.
4. Zorionak eman dizkie HJPB/PERIgatik.
5. Zabalgunearen mendeurrena, urte eta erdi barru.
6. Hirigunea atsegín egiteko plana: auzotarrek bizi-kalitate handiagoa dute, baina gizarte-bizitza txikiagoa dago.
7. Proposamena: Aparkalekua egitea Sarasaten
8. Auzotarra: Zorionak eman dizkie auzo-eztabaidaguneak eta antzeko esparruak eskaintzeagatik eta Atsegín Egiteko Planagatik.
9. Aparkaleku-arazo handia dago. Proposamena: Trinitariosekoaren moduko aldirietako aparkaleku bat Zabalgunetik hurbil eta loturako autobus-zerbitzua.
10. Proposamena: Bizikleta-aparkaleku itxia (adibidez, Sortzen).
11. Civivoxa: Zabalagoa eta espazio handiagoa.
12. Zabalguneko Civivoxeko kudeatzailea (Carmen Goienetxe): Auzotar guztiak gonbidatu ditu Civivoxera joatera eta haren instalazioak erabiltzera; horretaz gain, aretoak uzten dira, eta auzotarrekin lankidetzan aritzen dira.
13. Auzotarra: Beso-flexioak egiteko barra jartzea aire zabaleko gimnasioan.
14. Erorien monumentua: Ba al da aurretiazko azterketarik eraikinaren gaineko herritarren sentimenduari buruz?
  1. Galizia etorbideko auzotarra: Auzotarren parte-hartzea eta bizitza komunitarioa bultzatzen duten eremuak behar dira.
  2. Auzotarra: Aurreikusi da proiekturik Basotxoa Taconerarekin lotzeko?
  3. Auzotarra: Informazioa eskatu du Media Luna eta Labriten arteko zaldainari buruz.



4. Proposamena: Karlos III.eko oinezkoen lehentasuneko eremuko goraguneak margotzea, jendea eror ez dadin.
5. Proposamena: Aparkaleku pribatua duten egoiliarrei 15/20 minutuz dohainik aparkatzeko baimena ematea.
6. Proposamena: Loturako autobus-zerbitzua duen aparkaleku bat Lezkairu aldean.



Amaitzeko, partaidetza-prozesuan parte hartzera animatu ditu zinegotziak han bildutakoak; hala aukera izango dute Zabalgunearen 10 urteei buruz gogoeta eta diagnostiko erreal bat egiteko, eta auzoaren benetako beharrei erantzungo dien proiektu bat osatzeko.